

Kafe antzokia eta bere testuingurua: Zenbat Gara elkarte

Jose Angel Irigarai Jna.

Kafe Antzokiko eragile taldekoa

En 1994 nació la asociación Zenbat Gara (cuántos somos) con el fin de desarrollar nuevos espacios de sociabilidad. Procura unir espíritu lúdico con cultura. En 1995 fundó el Kafe antzokia, un centro de cultura para vivir en euskara y encontrarse con las músicas, canto, danza, teatro, literatura, arte, cine, video, café y hábitos de comida.

Zenbat Gara Elkarte euskaraz bizitzearen muintetik sortua da 1994an, bizi espar-ruak garazen joatea da helburu nagusia. Ludikotasuna eta kultura uztartzen dihardu. 1995an Kafe Antzokia sortu zen Kulturgune berezia euskaraz bizitzeko, euskararekin topo egiteko, musika, kanta, dantza, antzerkia, literatura, artea, zine bideoa, kafe eta jatetxea.

In 1994 the association “Zenbat Gara” (How many of us there are) was born with the aim of developing new spaces for sociability. It endeavoured to combine a ludic spirit with culture. In 1995 it founded the Kafe antzokia, a cultural centre where in an Euskara-speaking ambience it is possible to find music, song, dance, theatre, literature, art, cinema, video, coffee and cuisine.



Ander Lipus eta J.A. Irigarai.



J. Estebaranz, S. Burutxaga, A. Basañez, A. Landa.

Zenbat Gara Elkartea Euskaraz bizitzearen muinetik sortua da (1994. urtean), bizi esparruak garatzen joatea da helburu nagusia; izan ere, hizkuntzaren biziarekiko kezka-kontzientzia hasieratik zen berdintasun, berezitasun eta elkartasunez mamitua nahi/behar dugun bizitzaren diskurtsoaz osatzen joan.

Elkartekideentzat bizitzaren zentzua ez da geugandik at dagokeen ezer, norberaren mailatik zibilizazio eta nazioarteko mailetaraino loratzen eta garatzen doana baizik, propioki orekatutako ni-gu dialektikan.

Horiek hola, eta izaera egoera baldintzatzailean osatzen joan beharra bada-go ere (gaurko errealitatean eta errealitateetik abiatuta, beraz), izaera gero eta osatuagoari dagokion egoera berria eraikitzen joan nahi dugu; aipatu zutabe- ez gain autogestio eta autoeraketan (ideietan, pertsonetan eta baliabideetan), eta esperientziatik (egindako bidetik) ikasiz, horren araberako kontzientzia eta koherentzian.

Eta bidean asko dira jadanik garatzen ari garen esparruak.

Oinarrizkoa, biziaren muinean dagoelako, ludikotasuna eta kultura -jaia eta bizia, kaosa eta ordena- uztartzen diharduen AL GARA konpartsa dago; duela 4 urte sortua Elkartearekin batera. “Denbora eta historiaren” tiraniaz sendatzen gaituen eta osa gaitzakeen jaiaren zentzu osasungarri, bizigarri eta berdintzai- lea (ez uniformatzailea!) egunoroko bizitzan, ez bakarrik jaietan, txertatzen joatea da AL GARA konpartsa- ren eginkizun nagusia.

Euskalherri osoan Euskararekiko motibazioa handiagoa omen da ezagutza baino, eta ezagutza askoz ere handiagoa da erabilera baino (azkeneko azter- keten arabera Bilboaldean, adibidez, ez da %2ra iristen). Ezinbestekoa da, beraz, hizkuntza eta bizia propioki uztarturik jardutea. Hortik abiatuta, erabi- lerari esparru eta izari berriak eskaini nahi izan zaizkio KAFE ANTZOKIAN.

1995eko Abenduaren 15ean Kafe Antzokiak zabaldu zituen bere atea. Hauek ziren helburu eta asmoak: *“Kultur gune berezia; Euskaraz bizitzeko, sustraietan barna eta lau haizeetara hegan; Euskararekin topo egiteko gunea, kultur eta jai giroan; bertatik beste hizkuntza-kulturekikoa. Euskaratik abia- turik gure herrian arlo borretan inoiz garatu den proiekturik handiena; gaur- koa, hemengoa, irekia, independientea, bizia. Musika, kanta, dantza, antzer- kia, literatura, artea, zine bideoa, kafe eta jatetxea... Eszenatoki, erakusketa eta mintzaldi aretoa, haur eta gazte guneak, kafe-jantokia... Bilbon, hiriba- rruan; zurea”*

Ondoren, programazio joriari eman zitzaion hasiera; beti ere, oreka segur- tatu nahian, etxekoekin artekatuz beste herrietakoak, musika mota desberdi- nak ekarriz, haur eta gazteei dagozkienak, bestelako kultur ekitaldiak eta hala. Horietarik asko dohainik. Honela: astearte klasikoak, hitzorduak (min- tzaldi, mahainguru, performance eta beste), kontzertuak, antzerki eta beste eszena-performanceak, bertso afariak, haur jaiak, prentsaurreko, mahainguru eta beste...

Hori kulturari dagokionez. Kafe Antzokiaren beste arloa, ostalaritza, hasieratik ipini baitzen martxan, astegunetako eguerdiko jatorduko menuak, arrakastatsuak, egunoroko hizka-mizkak, otarteko eta antzekoak. Gainerat kafetegia. Asteburuetan, pixkanaka, gero eta jende gehiago hurbiltzen hasi zen, goizeko ordu txikiak arte; hasieratiko asmoa -kalitatezko musika- (beti proportzio handian euskalduna delarik) eskaintzen saiatuz (batzuk izan dira lanbide horretan ibili direnak, baina azpimarragarria da jauzi kualitatiboa Josetxo Anitua musikari aditua kargu egin zenetik eman zela).

Eta zer jende mota hurbiltzen da Kafe Antzokira?

Esandakoaren arabera: denetarik. Goiz eta atsalde partean euskaraz ikasten ari diren ikasle asko; kontzertuetara zaletasunen arabera (klasikoa, jazz, rock, pop, folk, tekno...), esan nahi baita, adin eta mota askotarikoa. Jatorduetan inguruko bulegoetako eta bestelako jende anitz (haietarik frango Bilboko, Bizkaiko edota Euskalherri osoko euskaldunak); berdin kopa bat hartzera; haurrak eta gurasoak, gazteak, asteburuko jende anitza, eta abar.

Bi hitzetan esateko: giza paisaia aberatsa, bai adin aldetik nola motaz, oinarrikoa delarik euskaldungoaren presentzia nabarmena, gero eta handiagoa, orobat euskararen mundura arrazoi desberdinengatik erakarriak senditzen direnena.

Helburuak, beraz, Euskaratik abiatutako topagunea, sustraitua eta idekia... betetzen ari da. Gaur egun, jada, Kafe Antzokia euskal gune eta erreferentzi nagusia bilakatu dela esan dezakegu, ez bakarrik bilbotar edota bizkaitarrentzat, Euskalherri osoko herritarrentzat ere baizik. Nazioarte mailan ere gero eta ezagunagoa da (bertatik pasatzen direnen oihartzun baikorren ondorioz); dagoeneko 5 kontinentetako artistak igaro dira bertatik.

Kultur eta aisialdi gunea ezezik, gizarte mailako gogoeten topagune ere bilakatzen ari da. Ez da, beraz, berria fisikoki soilik, abiapuntu-ardatz-helburuetan eta hauek orekatzeko ahaleginean ere baizik.

Aipatu filosofiaren adierazle eta era berean konektore, bestalde, komunikabideak ditugu. Beraien artean 1997ko maiatzean abiatu den "BILBO HIRIA IRRATIA" (96.00 FM). Bilboaldera hedatzen da eta, Elkartearen ikuspegitik, adierazle bezainbat hartzaile izan nahi du, antzeko ildotan dabilzanekiko feed-back bizi-garria sortuz. Zentzu berean, ondare bilakatzen ari den bideogintza (Kafe Antzokiko ekitaldiak eta beste); gero, etorriko diren beste komunikabideak.

Euskara irakastea baitezpadakoa da gure egoeran, areago hura biziaz mamitzea. Hezkuntza ez daiteke gramatikan (logosean) soilik oinarritu, bizitza bera behar du abiapuntu, ardatz eta helburu. Hor erronka handia dago, biziarena berarena baita. Horretan saiatzen da GABRIEL ARESTI EUSKALTEGIA, orobat ikasleen beharrak betetzeko eraturik dagoen AKADEMIA; azken honekin, eta "HAUR TXOKOArekin" batera, osagarri diren ekimenak (tailerrak, ikastaroak, bidaiak, etab.) aurrera ateratzeko ekimena bidean dago.

Argitalgintza ere, sail gisa, abian da 1997an, nahiz aurretik ere izan diren argitalpen solteak. Hor, dibulgazio mailakoetatik sakonagoetaraino (orritxoak, aldizkariak, liburuak eta antzekoak), didaktika eta pedagogia berrituan oinarritu testu liburuak barne, badago garrantzizko arlo bat. GARA argitaldariaren egitekoa da. Horri loturik 2 hiletik behin argitaratzen den ZENBAT GARA aldizkaria.

Munduko hatsak, herriak, ezagutzea, ez postal gisa eta kontsumoko turismoa eginez, elkarren arteko errespeto eta elkartasunean oinarrituta baina, geure buruak aberasten eta osatzen joateko bidea da. Horretan, hasteko eta behin, etxetik hastea egokia bezain beharrezkoa da; horrekin batera bestetara joatea. Beti ere, helburua jendea, ohiturak, jaiak, geografia, kultura eta beste, ahalik eta jatorren ezagutzea da; Euskalherrian zein beste herritan. Hauekin, gainerat, kultur elkar trukaketak, ikastaroak, egonaldiak eta antzekoak antolatuz. Herrien arteko elkar ezagutze eta preziatze sarea eta kultura sortuz eta bultzatuz, zinezko nazioartekotasuna eraikiz. Hori da ARGOS Bidaiari elkartearen sortzeko zio eta helburua. Aurretik ere maila xumean ari izan bada ere, 1997an hasten da egitaratu eta oparoagoa izango den bidea urratzen.

Azkenik, egituraketa finkorik ez duten arren, aipagarri dira ZENBAT GARA Elkarteak era jarraikian antolatzen dituen ikastaro eta ekitaldiak: soziolinguistika, euskara sakonketak, musika, kanta, dantza, bertso, margogintza, yoga, masaiak, gimnasia eta halako esparruak jorratuz. Horiek denak gogo eta gorputzaren oihartzuna eta hizkuntza diren ber, ezin bizi-garapenezko bidetik bazter utz. Horiek ere, zentzu horretan, jaiaren antzera, aberastuz gain osatzen gaituzte eta.

Honaraino jadanik abian dagoena. Gero bizigintzari dagozkion esparru eta zerbitzuak garatu nahi lituzke Elkarteak: informazio gunea, ekologia, osasungintza, etxegintza, finantziarloan ...; hein batean jada oraingo gintzetan txertaturik daude.